

Idatzi, Azken fusila, honen oso ezberdinak diren beste eleberrri bi idatzi ondoren egin nuen. Lehena 'Speed Gauak' izan zen. Jolas hutsa.

'Speed Gauak' 80ko hamarkadako Bilbon gertatzen da, orduko mugimendu politiko eta sozialen olatuaren aparretan. Beraz, eleberrria geografia zehatz batean kokaturik dator, kasik zuzen-zuzenean errealtatetik hartutako pertsonaiekin.

Eleberrrian sexua, alkohola eta politika nahastuz garaiko tabuetako batzuei eraso nahi izan nien; alegia, egungo tabuak direnei; elizari, ordenu indarrei eta politikari profesionalen multzoari, monarkia ahaztu gabe (gaur egun ere Espainiako *Erresuman* dagoen sistema monarkia dela esan behar da).

'Speed Gauak' eleberrria generoen nahasketa da. Badu polizia generotik zerbait, lapurreta eta ihesaldiz osatua denez gero. Amiera, berriz, ikonoklasta du. Bada, 'Speed Gauak' eleberrri urbanoa dela esan liteke, eta halaxe esan zen bere garaian. Eta ni pozik horrekin.

Larogeiko hamarkada hartan gurean garrantzizkoena 'hiriko literatura' egitea zela uste zen; itxura batean behintzat. Hau, jakina, euskal literaturaren ingurumarian ulertu beharra dago. Gure literatura gehien bat elizako eta baserriko giroei loturik garatu da. Hots, literaturaren joera modernoetatik urrun. Harik eta zenbait idazle etorri ziren arte, hala nola, Txillardegia, hirurogeikoetan, eta Saizarbitoria, Atxaga, Sarrionandia eta beste gero.

Esan beharra daukat; 'Speed Gauak' hile gutxitan idatzi nuen, beti ordu berean jardunez, alegia, goizez, nire itzultzaile lanbideko zereginei ekin aurretik.

Nire hurrengo eleberrriaren titulua 'Blausta!' da. Euskaldunon Egunkarian egunez egun argitaratzeko idatzia da-eta, barkatu didazue gogoraraztea egunkari hori Garzon epailearen aginduz itxi zutela, eta gaur dela eguna auzia zertan den ez dakiguna. Harritzekoa ere ez dena, bestalde epaile berberaren eskuti itxi baitzituzten Egin egunkaria eta Egin Irraita, salbuespen egoerakoa legez definitu ahal den *Audiencia Nacional* delakoaren agindupean. Azken bi horiek ixteko agindua eman zenetik sei urte igarota, auzia zertan den inork ez daki.

Bigarren eleberrira itzulita, agorrilean zehar idatzia da, egunean atal bat idatzi eta hurrengoan argitaratuz. Horrelaxe, kasik hogeitamar egunez, beste hainbeste atal sortuz, presakako idazkeraz. Hots, soluzio teknikoetan eta halakoetan lar nekatzeko astirik gabe. Uda bateko ametsa. Eta berriro ere jolasa eta olgeta.

Ordurako Bilbo atzean utzita itzulia nintzen sorterrira, kostaldera. Han amaitu nuen 'Atoiuntzia' narrazio-bilduma idazten. Tituluak berak dioen legez, Atoiuntziko ipuinak itsasokoak dira, Bilbotik Ameriketaraino zabal den itsaso horrexetakoak. Eta horra nire fikzioaren gertaleku berria; itsasoa.

Euskal literaturan apenas dago itasorik. Tamala da. Itsasoak eta itsas-ertza, fikzioari buruzkoan, arlo ezin hobekak baitira. Gure lehenengo leku urbanoak dira. Munduak eta jendeak elkarrekin nahasten eta gurutzatzen

diren lekuak izanik, horietan beste edonon baino istoria eta bizipen gehiago gerde dira. Hala bada, esan litekeena da itsasoan sartu arren ez nintzela giro urbanotik aldendu.

'Atointzia' hartan sartu nituen narrazioen bidez sortu nahi izan nuena ez zen ohituren literatura berri bat. Tentazioa hortxe dago, ostera, sorterriko ostatueta halako hamaika ipuin aditu ahal da-eta. Nire ipuinetako protagonistak lapur litxareroak dira; edo printzipe urdinak amestu eta horiek etorri bai, baina haurdun utzita alde egiten dizkietan neskak; edo eurek jakin barik gizonekin maitemundurik diren gizonak, edo salbaturik izan nahi ez duten naugrafoak. Denak halakoak.

'Azken' fusila idazteari ekin nionean Atointzian irudimenaz hartua nuen mundura itzuli nintzen. Egia esan, beste eleberri bat zen orduan idatzi behar izango nukeena. Izan ere, hantxe ziren berrogeita hamar folio idatzirik, jarraipenaren zain. Onofrek, 'Azken Fusila' eleberriko pertsonaia nagusiak, beste ezerk baino indar handiagoz tiratzen ninduen-eta, horra arazoa.

Barkatu ahalko didazue hizketan honela hasi izana, nire liburuak eta sorterria aipatuz, alegia. Horiek, azken batean, ez baitute norberak eman nahi diena baino garrantzi handiagorik. Niretzat ostera, garrantzitsua da nire eleberriak edo nire beste liburuak nondik nora sortzen diren esatea, hoberen ezagutzen dudan gaia direnez gero. Gainera, horietaz hitz eginez azaldu ahalko dira bestela gaitzagoak liratekekeen beste gai batzuk. Arrisku baitut literaturaz, eta batez ere euskal literaturaz, lar teorizatzea, eta gero nire teoriak lainoetan galtzea, edo zuek horiei lar urruneko iriztea. Hala bada, Onofre gaixoari oratuko diot, eta ea nora iresten garen.

Onofre nire lagun handi baten osaba baten izena da. Ene bizi osoan ezagutu dudana-eta gizonik tristeena zen. Seme-alabarik gabekoa, emaztea hil ondoren Mundakan bizitzera etorri zen. Alargundu zenean lehendik ere bazuen melankoniaren sintomak larriago agertu zitzaizkion. Melankonia horren sorburua hondoraketa batean zegoela uste dut. Esaten zutenez, Matxitxako aurrean hondaratu zitzaion itsasuntzia, bera kapitan ziharduelarik. Agintea eduki zuen azken ontzia huraxe izan omen zen. Onofre merkanteetako kapitaina zen, bai. Bada, eleberriko Onofrek benetako haren ezaugarri bat edo beste badu, hala nola, kapitan gradua eta melankonia. Eta, esan beharrik ez dago, izen arrano hori. Entzun eta horren jabea, ezinbestez, gizon tristea izan behar dela pentsarazten digu.

Izenarekin eta hondoraketaren kontuarekin, neukanik ere ez nekien zerbait baneukan eta, halako batean azalera etorri zen. Aukera komiki baten gidioa egiteko enkargua eman zidatenean etorri zen. Hori idazten hasi nintzenean agertu zen Onofre. Komikiaren izena 'Begien indarra' da. 'Azken fusila' eleberriko pasarte batzuk komikian sortu ziren.

Baina hori baino lehenago izan zela uste dut Onofre lehenengoz agertu zitzaidanekoa. 'Itotakoen arrastoa' izeneko ipuina idatzi nuenean, hain zuzen (ipuina Atoiuntzia bilduman dago)

Kontaezinak dira itotakoei buruz konta nitzakeen ipuinak. Nire zenbat lagun hil diren itota! Aitabitxia, haren semea eta beste batzuk ere.

Itotakoak alde batera, eleberriko lehen atala, atal independente modura jaio zena, argazki batek eman zidan. Argazkia berrogeita hamarreko urteetakoa zen, zuri-beltzean. Horretan gure kostaldea elurretan ageri zen. Diotenez, gurean urteetan izan den elurtetik handiena izan zen hura.

Euskal Herriko kostaldean gutxitan egiten du elurra, eta egiten duenean behingoan urtzen da. Hori dela-eta elurra denean eskoletan jai ematen dute. Umeek fenomeno harrigarri horretaz goza dezaten, hai zuzen. Gabonetako giroaren kutsua, badakizue. Hau esanda agian hobeto uler daiteke argazkiak eragin zidan zirrara. Herriaren aurreko irla bere ere elurrez estalita zegoen. Argazkian zuria ez zen zuri, askoz ere bitxi eta lausago zen zerbait baino; irudimenari aske joaten uzteko gonbitea zen. Zer gerta zitekeen halako elurte batean? Lehena, bidazti batek gauez -ezaguna egiten zaizue, ezta?- aterpe bilatzea, aterren batetan joz. Nire irudimenean norbaitek Onofreren etxeko atean jo zuen. Nork eta maki batek.

Ez dizuet makiaz, Frankismoari egin zitzaion borroka armatuaz, ia hirurogeikoetararte iraun zuenaz, luze hitz egingo. Gure eskualdean haien ekintza armaturik izan ez bazen ere, esan ahal dudana da gure eskualdean halakoren baten bat izan zelako berria izan nuela; ez iturri idatzien bidez, ahozko iturrietatik baino. Borroka amaitutakoan Frantziara ihes egin nahi izan zuten batzuen ontziratzeko lekua izan bide zen gure kostaldea.

Hala bada, neguko gau batean maki batek Onofroren atean jo du. Ondo. Lehenengo atal hori berez etorri zitzaidan. Baina hortik aurrera, zer?

Horra nik buruan neukan galdera, hirurogei orri idatzita nituen beste proiektu hartan lan egitea eragozten zidana. Duda betean, Onofre eta bisitariaren istorioak aurrera zelan egin lantzeari ekin nion. Baina behin puntu honetara iritsita, utzi eizadazue idazte prozesura itzultzea. Hortxe baitago gakoa.

Eleberria egunean gehienez jota folioa edo folio eta erdi idatziz sortu nuen. Beti eguneko lehenengo argitan jardunez. Gosaldu barik. Ganbaran. Teilatu-leiho batean barna etxe barrua zetorren argiaren baitan. Bihotzeko taupadak idatziaren erritmora egokituz. Airearnastuz. Itzartzen ari zen kaleko zaretei adi. Ordu batez baino ez nuen idazten, egunero, denbora horren ostean hantxe idazten segitzeko gai nintekeen arren eten eginez. Idazten segituz gero zerbait gal nezakeelako sentzazioaz.

Horra eleberriaren pausoa. Orainaldian eta pertsonaiei kamera-begiaren bidez so eginez egokitua. Eurekin egon moduan. Halaxe, arnasaren konpasean eta kamera gehienetan lehen planoetan edo plano ertainetan

fokatuz, eleberriko pertsonaiak eta euron istorioak agerira etortzen hasi ziren. Orainaldian, diodan moduan. Iragana orainaldian idaztea terapia omen da. Hori handik denbora batera norbaitek esan zidan, Gestalt delakoa aipatuz.

Ez dakit orainaldian idaztean zerbaitengatik terapia egiten nuen, auskalo. Argi neukan, berriz, euskal aditz laguntzailearen musika gogaikarria gainditu nahi nuela. Gure iraganeko laguntzaileak, denak amaitzen dira enez. 'Baleen berbaroa' idazteari ekin nionerako gainditurik neukan arazoa zen hori; iraganarena, esan nahi dut.

Itzulpenean ez da honelakorik antzematen. Antzematen ote den ez dakidan beste alderdi bat da, berriz; adbertsatibo lokailurik apenas erabiltzen dela, hain zuzen. Ez dakit irakurlea honetaz ohartu den.

Egitura sintaktikoak ideologia dira. Kontzesiboak eta adbertsatiboak batez ere. Esatea, adibidez, "eguzkia zen arren etxean geratu nintzen", diskurtso oso bat egitea da. Aldiz, esatea "eguzkia zen; etxean geratu nintzen", konstatazioa da. Honetaz hitz egitea eleberriko pertsonaiez hitz egitea da, ostera.

Pertsonaien bizitzak denak aldi berean doaz, baina inoiz sekulan elkar topatu gabe. Honen harira iritsi nintzen bakardadeaz eta infinitoaz gogoeta egitera; elkarren aldean zentimetro batera diren gorputz biren arteko distantzia infinitoa da, baldin eta horietako bat bera ere mugitzen ez bada, biak geldi baldin badaude. Eleberrian bada honen konstatazioa. Onofre eta Anita -emaztea- elkarrengandik distantzia infinitoan daude, nahiz eta fisikoki aurrez aurre egon. Agian bai. Agian terapia egiten nengoen.

Anitaren pertsonaia txikitako akorduetatik sortua da. Bazen etxera etortzen zen emakume bat -Anita zuen izena-, aldi berean moderna eta antzinakoa, biak batera zena. Modako aldizkariak irakurtzen zituen, eta begizkoa egiten omen zuen. Horra hibridoa! Gure amamak eta gure amak, biek sinesten zuten begizkoetan. Bada, halako batean Anita Onofreren emazte bihurturik agertu zitzaidan.

Benetako Anita hark, emakume ustez moderno horren irudiarekin batera, bere etxea eta bere sola eman zizkidan. Niri beharrazko baitzait leku zehatz eta benetakoak buruan izatea, bestela ezin sinistu idazten ari naizena.

Amaren eta amamaren munduaren beste aldea aita zen. Aita preso ekarri zuten Gernikara, Kondor Legioak eta italiar hegazkin batzuek Frankoren aginduetara bonbardatu zuten hiria berreraikitzen. Han denbora batean jardunarazi ostean, Sukarrieta eta Bermeo arteko trenbide zatian lanean jarri zuten. Lau kilometro baino ez ziren, baina zelako lau kilometro!

Bilbotik kostalderainoko trena XIX. mendeko azken urteetan egin zen. Azken lau kilometro haiek, ostera, gauzatu barik geratu ziren. Hogeita hamar urte eta gerra bat igaro behar izan ziren hura burutzeko. Presoen esku-lan doanekoari esker burutu ere.

Berriki hasiak dira diktadura eta esku-lan esklabu haren artekoa aztertzen; eleberria idatzi nuenean ez

zegoen horren gainean ezer idatzirik. Nik dakidala behintzat. Entzuna nuenera joz egin nuen egin nuena. Parean jo nuela uste dut, apaltasunez.

Preso egondakoen integrazioaren historia, historia ederra eta alde berean krudela da. Ederra, eragin zituen sendimenguengatik; gure aita, bera preso egondako herriko neska batekin ezkondu zen. Eta bera bezala beste batzuk. Baina krudela ere izan zen, gero etorkin etorri ziren besteena izan zen bezalaxe. Hona hemen zergatik.

Urte haietan euskara hizkuntza debekatua zen, etxe, taberna eta zaintza zorrotzik ez zuten baserri eta itsako bazterretara mugatua. Hala bada, gure aitak, beste askok bezala, ez zuen inoiz euskarik ikasi. Nire buruari galdetzen diot zer zela egin zuten horrela. Ez zen izan gura aitak lagun euskaldunik egin ez zuelako. Egin egin baitzituen, eta ugari gainera. Erantzuna, debekuaz esan dudana ahaztu gabe, erraz dator. Euskaraz zekien bat eta ez zekien beste bat elkartzen zirenero, bazekienak, bereari uko eginez, ez zekienaren hizkuntzara jotzen zuen. Lehenik gizakia baitzen, eta gero hizkuntza.

Xinplea dirudi, baina sakona da. Urte haietan gertatu zena, eta gaur egunean gertatzen segitzen duena ulertzeko balio baitu. Baina besterik ere bada. Eleberriak -'Azken fusila'- funtsezko zerbait erakutsi zidan. Gerra ostean euskaldun galtzaileak -euskaldunak garaileen artean ere izan ziren, bai- eta galtzaile espainolak -preso egondakoak nahiz lanean etorritakoak- batera bizitzen hasi zirelarik, zer gertatu zen? Bada, nire iritzian gertatu zena zera izan zen; tabernako tratua, adiskidetasunak, ezkontzak eta halakoak alde batera, batzuek eta besteek elkarri etsai edota elkarrenganako mehatxu legez begiratzen ziotela. Politika arloan, esan nahi dut.

Galtzileak galtzaileekin aurrez aurre, batzuk -bertakoak- arrotzak etxean sartu zaizkiola pentsatzen, eta besteak -kanpokoak- etxeko sendimenduetatik urrun eta arrotz sentitzen euren burua. Horra Frankismoaren garaitza handienetako bat.

Esan behar dut gure alaba bakarra jaio zenean aitak hari euskaraz egiten ziola. Ikasiak zituen arren ozen esateari uko egin zien hitzak esaten zizkion. Hona hemen bestea istorio eder bat, zelan kontatu giltza non datzan oraingoz ez dakidana.

'Azken fusila' honeta itzulita, Onofre eta preso egondako baten arteko adiskidetasuna dago hor. Bada, adiskidetasuna horretan tabernak garrantzia du. Taberna, benetakoa izatez gainera, garai hartakoen artean geratzen den bakarra da, Kasinoarekin batera. Izan zenaren eta honezkeroko ez denaren airea badute biek ere.

Hau dena garaia erabakigarri batean gertatzen da. 1955.aren inguruan, urte horrexetan zabaldu baitzen trenbidea. Horretara Generalisimo bera etorri zen. Bestela, garai horretan gauzatu ziren aldaketei esker diktadurak beste hogeit bat urtez iraun zuen. 1975an diktadorea ohean hil arte, hain zuzen. Egia da, bestalde, erregimenaren iraupean baskoek ere zerikusia izan zutela.

Diktadurari eusten zioten horiek ere eleberrian dira. Hala eta guztiz ere gai hau tabu modukoa da oraindik gurean. Alde bien artean -diktadura ala erresistentzia?- Onofreren lagunetako batzuek haren aldeko hautua egin dute.

Erresistentzia armatua amaitzeaz batera garai bat amaitu zen, hala Espainian nola gure herrian ere. Garaia joan, eta harekin erresistentzia modu batzuk ere agortu. Beste batzuk sortuko ziren. Labur esateko, horixe da Eta sortzen deneko garaia. Nire ustez horren zantzuak badira nire eleberrian. Nahiz eta nobela politikoa izan ez. Ezta ere polizikoa edo psikologia. Horietatik denetatik zerbait baduela uste dut, hala ere.

Esanda nagoen moduan, trenaren inaugurazioara Franco bera, Espainiako Generalísimo eta Caudilloa etorri zen. Zer gertutuko ote zen norbait heriotza emateko baliatu izan balu bidaia? Dakizuenez, ez zen halakorik gertatu. Baina galdera horrek beste asko uzten digu mahai gainean. Bat, funtsezkoena, zera da; ea gutariko bakoitzak zer egingo zukeen halako gau batean bidazti batek, lagun batek, atean jo eta ostatu eskatu izan baligu. Baina eta armaturik etorri gero? Eta diktadorea akatzeko etorria izan eta gu horren jakitun izanez gero? Eta galdera egungora ekarriz gero, zer?

Sekulan inoiz amaitu ez dudana eleberrietik -Abuztuko hogeitamar egun titulatu nahiko nukeen- magnizidioaren gaia hartu nuen. Harako hartan anarkista bat izan behar zen Alfonso XIII erregeri tiro egingo ziona, 1912an; 1955an 'Azken Fusila' honetan norbaitek Francori tiro egitea amesten duen leku berean. Magnizidoa agertzeko nire joera hau adieraztea niretzat peril handia izan ahal da, badakit. Gai ederra da, ostera. Alfonso XIII akatzeko zenbait ahalegin izan zen. Eta nire lagun handi batek, Koldo Izagirrek, Espainiako Erresumako gobernuburu Cánovas del Castillori heriotza eman zion, eta gero berari heriotza urkabilurraz eman zioten, Angiolillo anarkista italiarrrena idatzi du-eta, literaturaren aldetik gaia niretzat agortuta dagoen arren, galderek hortxe segitzen dute. Gogoratu, berriz, Angiolilloren hori dena gure Euskal Herrian gertatu zela.

'Azken Fusila' honen hariari berriro oratuz, horra sexua ere. Jaio egin gara, sortu egin gaituzte, eta hala ere ezin dugu gure aurrekoen haragi-mina imajinatu. Iragana kolorez ikustea ezinezko zaigu. Eguzkia, gu jaio aurretik ere, hantxe zen arren. Eta hantxe zegoen itsasoa, gaur bezain urdina, eta belarra, gaur bezain belarkara, eta txakolina, beti iraileko mahats koloreko. Irageneko denborez idaztean oso kontutan hartzekoa dela uste dut.

Horrela, sentzazio horiei denei ni baitan eutsiz, Onofre eta Juan lagun makisarenak harikaltzen joan nintzen. Eta beste pertsonaia batzuk agertu ziren, irakurleari ere eleberria irakurri ahala agertuko zaizkionak. Denak zetozen trenak ekarrita lege. Minez eta pozez zetozen. Negar eragin zidaten. Idazteko batzuetan negar egin behar baita. Nik negar egin baitut

hemengo pasarte batzuetan. Horrela egin ahal izan diot aurre aitaren heriotzari. Idaztean negar eginez.

Azkenik hor dago musika. Eleberria Onofrek bezala Beethoven entzunez irakurri ahal da, musikaren bidez bizitzaren esangura bilatuz. Alderdi honetatik eleberria esistentzialista ere bada.

Amaitzeko, titulua aipatuko dut. 'Azken fusila'. Western-spaghettiaren ohartzuna du, egia da. Ez dit ardura. Oso gogoko nuen generoa da. Azken batean eleberria -hau lehenago ere esan dut- kameraren bidez idatzia da. Batzutan hori lepoan hartuta, beste batzuetan tripodean jarrita, zenbaitetan travelling eginez. Motorrean doazenean bezala. Hori idazten une gozonenetako bat bizi izan nuen. Zuek ere, irakurleok, halaxe gozatu ahalko duzue, 'Azken fusila' italianoz irakurtzean. Hala bada, eskerrak eman behar dizkiot itzultzaileari, Roberta Gozzi andereari, euskaratik zuzenean itzuliz egin duen lanagatik, lehenago 'Baleen Berbaroa' eleberriarekin egin duen bezala. Ordu asko eman ditugu elkarrekin lanean eta berbetan. Zorioneko ni, haren ezaupidea egin nuenean. Berarenganako esker ona besterik ez dut, liburuengatik ez ezik beste askorengatik ere. Azkenik eskerrak eman behar dizkiot argaratzaileari, alegia, Giovanni Tranchidari, denbora tarte honetan izan dugun harremangatik. Italia ezagutzea izan dut beti gogoan, eta eurei esker bete ahal izan dut nire gogoa. Honela izan izanak, alegia, liburu hauen bidez, askoz zoriontsuago egiten nau. Eskerrik asko.

---

Scrissi L'ultimo fucile dopo aver scritto due romanzi molto differenti da questo. Il primo fu Speed Gauak - Notti di speed, un divertimento.

Speed Gauak è ambientato nella Bilbao degli anni ottanta, nel pieno fermento dei movimenti sociali e politici. Quasi tutto il romanzo si svolge nel centro storico della città. Riproduce quindi una geografia esatta e lo fa attraverso dei personaggi presi pressoché dalla realtà. Una combinazione di sesso, alcool e politica che aveva la pretesa di attaccare i tabù dell'epoca, che continuano a essere quelli di oggi, cioè la chiesa, le forze dell'ordine e la classe politica professionale, oltre alla monarchia che, come ben sapete, è il regime presente in questo momento, non c'è bisogno di dirlo, nel Regno di Spagna. Aveva qualcosa del romanzo poliziesco, con i suoi furti e inseguimenti e con un finale iconoclasta. Si potrebbe dire, e così si disse allora, che Speed Gauak è un romanzo urbano. E io ne sono soddisfatto.

All'epoca, durante gli anni ottanta, sembrava che la cosa più importante nella mia terra fosse produrre letteratura urbana. È qualcosa che va compreso all'interno del contesto della letteratura basca, più legata alla tradizione contadina e a quella del clero che alle correnti moderne della letteratura. Almeno fino all'apparire di nomi quali Txillardegui, negli anni sessanta, e Saizarbitoria, Atxaga, Sarrionandia, ecc., negli anni settanta.

Devo dire che scrissi Speed Gauak in pochi mesi, sempre alla stessa ora, dalle 8 alla 9 della mattina, prima di iniziare il mio lavoro di traduttore professionale.

Il mio romanzo successivo si intitolò Blausta!, che si può tradurre con “A terra!”. Lo scrissi per il quotidiano in euskara – la lingua basca – Euskaldunon Egunkaria – che, come spesso non si sa, è stato chiuso per ordine del giudice Garzón, attraverso un tribunale speciale chiamato Audencia Nacional. Diciamo, già che ci siamo, che una volta passati due anni dalla chiusura, nulla si sa di come stia andando il processo. E non sorprenda neppure che, una volta trascorsi sei anni dalla chiusura del quotidiano Egin e della radio Egin Irradia da parte dello stesso giudice, non si sa nulla neanche di questo processo.

Tornando al secondo romanzo, durante tutto il mese di agosto, scrissi un capitolo al giorno, capitolo che veniva pubblicato il giorno seguente. Così, quasi trenta giorni e altrettanti capitoli. Senza il tempo per pensare a soluzioni più o meno brillanti. Era necessaria una scrittura di emergenza e così considero quella, che d’altra parte rimase l’esperienza di un’estate, come un altro divertimento.

All’epoca avevo già lasciato Bilbao per tornare al mio paese natale, Mundaka, sulla costa. Qui terminai un libro di racconti Atoiuntzia – Il rimorchiatore – ambientati, come indica già il titolo, sulla costa, da Bilbao fino all’America. E mi sono imbattuto in un altro territorio. Quello del mare, appunto.

Nella letteratura basca, il mare è stato accennato appena. È un peccato. Perché il mare e la costa costituiscono territori ideali per la narrazione. Oltre al fatto che i paesi della costa sono i nostri primi territori urbani. Crocevia di mondi e di gente, raccolgono più storia ed esperienza di qualsiasi altro posto. E ciò mi permetteva di non abbandonare il compito di fare della letteratura urbana.

Le mie storie di Atoiuntzia non avevano la pretesa di forgiare un nuovo folclorismo, nulla di più lontano dalle mie intenzioni, sebbene la tentazione fosse enorme se si considera la quantità di aneddoti che ti possono raccontare nelle osterie del paese. Le storie che racconto in Atoiuntzia hanno come protagonisti delinquenti di scarsa importanza, o ragazze che sognano principi azzurri che sì, arrivano in veliero però anche se ne vanno lasciandole incinte, o uomini innamorati inconsapevolmente di altri uomini, oppure naufraghi che non vogliono essere salvati, e così via.

Mi misi a scrivere L’ultimo fucile occupando con l’immaginazione lo stesso territorio che avevo già occupato con Atoiuntzia. In realtà in quel momento avrei dovuto scrivere un altro romanzo. Infatti, avevo elaborato un altro progetto di romanzo, avevo già scritto cinquanta fogli e avevo chiesto una borsa al Governo basco, che me la concesse. Però accadde che il personaggio centrale de L’ultimo fucile, Onofre, mi attirava di più dell’altro progetto. Progetto che non ho mai portato a termine.

Mi perdonerete di aver iniziato in questa maniera, parlando dei miei romanzi precedenti, della mia terra cioè di queste cose che hanno l’importanza che ognuno desidera dargli. Però per me è importante parlare di come nascono i miei romanzi, di come hanno origine i libri in generale. È quello di cui posso parlare con maggior cognizione. E inoltre, chissà che così io possa dire qualcosa anche a proposito di quei libri di cui altrimenti non parlerei. Perché potrei teorizzare sulla letteratura in generale, su quella basca in particolare e magari le mie teorie si perderebbero nell’astratto o nel lontano. Quindi torno al personaggio di Onofre, e vediamo se arriviamo da qualche parte.

Onofre era il nome dello zio di un mio grande amico. Quell’uomo era l’uomo più triste che abbia mai conosciuto. Vedovo già quando lo conobbi, senza figli, era venuto a vivere a Mundaka dopo la morte della sua sposa. A causa di ciò gli si erano



acutizzati i sintomi di una malinconia che si trascinava già da prima. Sembrava che la causa della sua malinconia consistesse in un naufragio. Onofre era capitano della marina mercantile e l'ultima barca di cui ha avuto il comando sarebbe affondata, credo vicino a Capo Matxitxako, sulla costa basca. L'Onofre del romanzo non è l'Onofre reale, però ha qualcosa di lui. Il titolo di capitano e la malinconia, direi. E certamente, questo nome tanto strano che ci porta a pensare che il suo possessore non potrebbe essere altro che un uomo triste.

Con il nome e la storia del naufragio del capitano Onofre possedevo già qualcosa che non pensavo di avere, che però sarebbe affiorato alla minima opportunità. Questa opportunità si presentò quanto mi affidarono la sceneggiatura di un fumetto.

Mi misi a scrivere quella sceneggiatura, e così nacque Begien indarra (Il potere degli occhi) dove appare Onofre per la prima volta e dove già erano presenti alcuni dei fatti che racconto ne L'ultimo fucile. Ricordo che quando il disegnatore Alberto Uribarri mi chiedeva che cosa avrei fatto del personaggio di Onofre, commentando «Onofre, che razza di nome! Ma dove lo hai preso?», sempre gli rispondevo che lo avevo preso da una persona che avevo conosciuto, e aggiungevo che un giorno avrei scritto la biografia completa del personaggio di quel fumetto. L'ultimo fucile può essere considerato come il compimento, in parte, di questa promessa. Sebbene non sia tutto.

Prima di mettermi a scrivere L'ultimo fucile, prima ancora di aver scritto Atoiuntzia, credo poco dopo aver fatto Begien indarra, una notte che non riuscivo a dormire, presi carta e penna e mi misi a scrivere a mano un racconto che dopo inclusi in Atoiuntzia. E lì c'era un'altra volta Onofre. Senza volerlo. Il racconto era La scia degli annegati.

Gli annegati! È curioso. In casa avevamo tre grandi fotografie appese alla parete della sala da pranzo. In una c'erano i genitori della nonna, nell'altra una sua zia e nella terza sempre un suo zio. Lo zio era Marcelo. Era morto affogato. Mi sembra che questo accadesse prima della guerra. Non so come annegò lo zio Marcelo, però so come annegò il mio padrino, Benigno. Poiché quando avevo solo cinque o sei anni mio zio morì annegato in mare.

Una notte Benigno Piñeiro, si chiamava così e già dal nome si capisce che era gallego, uscì per urinare in coperta, si avvicinò al bordo e cadde in acqua. Non lo trovarono. Con lui navigava un parente di suo cognato – anche lui gallego – che fece l'impossibile, si dice, per salvarlo. Erano due amici galleghi che conoscevano appena il castigliano, sposati entrambi con due sorelle basche che parlavano meglio l'euskara del castigliano (dopo di che ebbero la televisione e la questione degli idiomi cambiò).

Ero molto amico del figlio del padrino, che chiamavamo Beni. Dall'età di quindici anni, Beni si dedicò alla pesca e un giorno cadde in acqua e annegò. Fu peggio di quanto accadde a suo padre, molto peggio. Cadde in acqua in pieno giorno e dal bordo di un'imbarcazione ormeggiata al molo, nel porto di Bermeo. Si racconta però che portasse degli stivali pesanti e che non sapesse nuotare. Fatto che posso confermare.

Non mi crederebbero. La mia madrina Milagros, la moglie di Benigno, la madre di Beni, che è ancora in vita, vedova di un pescatore annegato e che ha perso uno dei due figli che aveva, anche lui annegato, si sposò per la seconda volta. Con un altro pescatore, è ovvio. Sebbene questi sia morto sulla terra, non vi sorprenda che io sia ossessionato dagli annegati. Questo era a proposito del racconto La scia degli annegati, nel quale racconto la storia di un altro affogato, questo volta vivo, dove appare per la prima volta l'Onofre de L'ultimo fucile.

Tralasciando gli annegati, di cui comunque potrei raccontare molte più storie, quello che mi portò a scrivere il primo capitolo del romanzo, che all'inizio immaginai come un racconto indipendente, fu una fotografia. Era una fotografia degli anni cinquanta,

in bianco e nero. Si vedeva tutto il nostro territorio costiero innevato. Si racconta che sia stata la più grande nevicata della nostra storia recente.

Sulla costa basca nevica di rado e quando ciò accade la neve si scioglie quasi istantaneamente. Per questo durante i giorni di neve è vacanza a scuola. Affinché i bambini sfruttino questo fenomeno così strano, al sapore del classico Natale. Chissà se dicendo questo si possa comprendere l'effetto che quella nevicata mi suscitò. Perfino l'isola ne era ricoperta. Nella fotografia in bianco e nero, il bianco non era bianco, era qualcosa di più impreciso e strano. Era come un invito a divagare. Cosa potrebbe succedere con una tale nevicata? La prima cosa che di notte un viaggiatore chieda rifugio – sono certo che mi capite – bussando a qualche porta. E nella mia immaginazione qualcuno bussò alla porta di Onofre. Era un maquis, un partigiano.

Non vi parlerò del maquis, la resistenza armata al franchismo che durò fino agli anni cinquanta inoltrati. Non lo farò, almeno per il momento. Però devo dire che già prima di allora mi erano arrivate notizie, orali e non scritte, sulla presenza di qualche maquis nella nostra regione, nella quale non ci fu mai una vera attività di guerriglia in quanto tale. Comunque, certamente doveva essere stato il punto di imbarco per quelli che cercavano di fuggire in Francia alla fine della lotta.

Così, una notte di inverno un maquis bussa alla porta di Onofre. Bene, questo primo capitolo mi uscì quasi da solo. E dopo, come continua la storia? Questa era la domanda che mi ponevo. La domanda che mi impediva di lavorare al progetto della borsa di studio. Pieno di dubbi – non si trattava del romanzo per il quale avevo ricevuto gli aiuti finanziari – mi misi a scrivere su come continuava la storia di Onofre e del suo ospite e, giunto a questo punto, permettetemi di tornare al processo della scrittura. Poiché questa è la chiave di interpretazione.

Scrissi il romanzo scrivendo come massimo un foglio e mezzo al giorno. Sempre con le prime luci del giorno. Senza fare colazione. In mansarda, con il chiarore che entrava direttamente dal tetto attraverso un abbaino. Bevendo aria. Adattandomi al ritmo della scrittura. Ascoltando la strada che si stava svegliando. Scrivevo solo per un'ora, o poco più, solo questo tempo e, sebbene avessi sempre la sensazione che avrei potuto continuare, lasciavo tutto lì. Avevo l'inquietudine che se non lo avessi fatto avrei rotto qualcosa.

Questo è il ritmo del romanzo. Al presente e guardando i personaggi dall'obiettivo della macchina da presa. Come se fossimo con loro, esattamente lì. Così, a questo ritmo di respiro, così vicini all'obiettivo, quasi sempre in primo piano o in campo medio, i personaggi e le loro storie iniziarono ad affiorare. Nel presente, intendo. Una volta qualcuno mi disse che scrivere il passato al presente è terapeutico, e credo che mi citasse la scuola della Gestalt.

Non so se ho scritto al presente perché incoscientemente ero alla ricerca di qualche terapia. Quello che mi era chiaro era che volevo rompere la monotonia del verbo ausiliare basco. Le forme del verbo ausiliare basco, al passato, finiscono sempre per ene. Quando scrissi *La voce delle balene* avevo già superato il problema degli ausiliari del verbo. Quindi l'ultimo fucile mi curò almeno da questo male.

Sono dettagli che si perdono nella traduzione, la questione del passato e qualche cosa ancora. Però in questo romanzo non ci sono quasi aversativi, e credo che questo venga fuori nella traduzione. Anche se forse non ci avete fatto caso.

Le strutture sintattiche sono ideologia. Soprattutto le concessive e le aversative. Per non parlare di quelle condizionali. Dire "pioveva ma rimasi a casa" è tutto un discorso. Dire "pioveva, rimasi a casa" significa constatare. Potrei parlare di questo argomento trasportandolo sui personaggi del romanzo.

La vita di ognuno dei personaggi trascorre parallelamente a quella di tutti gli altri, però queste vite sono come delle linee che non si incontrano mai. Così giunsi a una riflessione elementare sulla solitudine e l'infinito: se due corpi si incontrano a due centimetri l'uno dall'altro però non si muovono, rimangono fermi, la distanza che li separa è infinita. In un momento del romanzo c'è la constatazione di questo fatto. La distanza tra Onofre e la sua sposa, Anita, è infinita. Anche se si trovano uno di fronte all'altra. Sì, si sta facendo della terapia.

Il personaggio di Anita nasce dai ricordi della mia infanzia. C'era una donna, vedova, che aveva un piccolo terreno nel quale, al posto di seminare e raccogliere i frutti della terra, accumulava un'immensa quantità di oggetti inutili, di cianfrusaglie e spazzatura. Veniva abitualmente a casa e noi bambini, un giorno ci siamo presi gioco di lei, chiamandola Sastarrera, cioè amante della spazzatura. Ricordo che lei protestò e mi arrivarono delle sculacciate dalla mano di mia nonna, o forse era mia madre, non so. Chiesi perché sopportassero la signora. Mi risposero perché era una donna con la quale conveniva non arrabbiarsi, visto che sapeva gettare il malocchio. Entrambe, mia madre e mia nonna, credevano a queste cose. Insomma, un embrione di Anita, una donna apparentemente moderna, era già lì. E un giorno si presentò alla mia immaginazione convertita nella sposa di Onofre. In più, mi diede la sua casa, l'immagine fisica di un luogo concreto, qualcosa di imprescindibile affinché io stesso possa credere a quello che scrivo. Non posso scrivere se non vedo dei luoghi concreti e precisi.

Ho parlato della madre e della nonna. Il loro contrappunto era nostro padre. Era arrivato a Gernika da prigioniero di guerra, durante la ricostruzione della città bombardata dagli alleati di Franco, cioè la Legione Condor tedesca e qualche aereo italiano. Vi passò un periodo e poi lo misero a lavorare alla costruzione del tratto della ferrovia tra Perdernales e Bermeo. Si trattava solo di quattro chilometri di strada, però che quattro chilometri!

La ferrovia tra Bilbao e Gernika, e più tardi il tratto tra Gernika e Perdernales, era già stato costruito tra il 1895 e la fine del secolo. Il tratto restante rimase in costruzione. Dovettero passare settanta anni e una guerra affinché gli ultimi quattro chilometri diventassero realtà. Grazie alla manodopera gratuita dei prigionieri. Adesso hanno iniziato a studiare la relazione tra la dittatura e la manodopera degli schiavi, però quando scrissi il romanzo non c'era quasi nulla di stampato. Io semplicemente attingevo a quello che avevo ascoltato in paese. Credo che mi sono accertato.

La storia dell'integrazione dei prigionieri, una volta liberati è una storia meravigliosa e crudele. Meravigliosa per i sentimenti che suscitarono. Mio padre riuscì a sposarsi con una donna del luogo dove era stato prigioniero. E non solo lui. Anche altri. Però ho detto che è stata anche una storia crudele, come fu quella di coloro che vennero durante gli anni cinquanta e sessanta da immigrati. E adesso spiego il perché.

Durante quegli anni l'euskera era una lingua proibita, ridotta all'ambito domestico, dell'osteria, dei posti di campagna e della costa dove non c'era una vigilanza stretta. Quindi mio padre, e come lui tanti altri, non imparò mai la lingua basca. E come lui, quasi tutti. Me ne chiesi il motivo. Poiché non è che mio padre non si fosse fatto degli amici baschi. Ne aveva, e molti. La risposta, a parte quello che già ho detto sullo statuto della lingua basca, è semplice. Quando si incontravano chi conosceva la lingua e chi non la parlava, quello che la conosceva rinunciava a parlarla. Veniva prima la persona e poi la lingua.

Questa cosa che sembra tanto semplice, è fondamentale per capire quello che successe nella nostra terra durante quegli anni e continua a succedere oggi. Però c'è di più. Questo romanzo, L'ultimo fucile, mi fece giungere a una scoperta fondamentale.

Dopo la guerra, i baschi che erano stati vinti – non i vincitori, e ci furono anche loro – si incontrarono con gli spagnoli vinti, con gli ex prigionieri e con gli immigrati. E cosa accadde? Accadde che, salvo i casi di amicizia personale, il trattamento nelle osterie, i matrimoni misti e tutto quello che vi ho appena raccontato, politicamente si considerarono nemici, o almeno come una mutua minaccia. Vinti contro vinti, gli uni – gli autoctoni – si sentivano invalidi mentre gli altri, arrivati da fuori, si sentivano alieni alle inquietudini degli altri. Questo fu uno dei grandi trionfi del franchismo. Curiosamente quando nacque la mia unica figlia mio padre le diceva alcune parole in lingua basca. Quelle che aveva appreso e che sempre si era rifiutato di pronunciare. Credo che anche questa sia una storia meravigliosa, della quale però non ho ancora la chiave.

Tornando a L'ultimo fucile, nel romanzo metto l'amicizia tra Onofre e un prigioniero quando quest'ultimo è già un ex prigioniero. Qui l'osteria gioca un ruolo fondamentale come luogo di incontro e come luogo dove questa amicizia va consolidandosi. L'osteria è uno spazio reale, l'unico in quella epoca, insieme al Kasino, che conserva ancora un che di quello che fu e che non è più.

Tutto questo accade in un'epoca chiave. Intorno al 1955 che è quando si inaugura questo tratto della ferrovia. Inaugurazione alla quale presenziò proprio il generalissimo, come avrete modo di vedere. Grazie ai cambiamenti introdotti durante questa epoca, la dittatura durò per altri vent'anni. Fino alla morte fisica del dittatore nel 1975. È evidente che la sopravvivenza del regime ebbe molto a che vedere con i baschi che l'appoggiarono, elemento presente nel romanzo, sebbene questo sia tuttora un tema tabù. Tra le due fazioni – resistenza o dittatura – alcuni amici di Onofre scelsero la seconda, poiché era quella del commercio.

Alla fine della resistenza armata terminava un'epoca in Spagna e nella nostra terra. E ne iniziava un'altra. Si esaurisce un'epoca e si esauriscono differenti forme di resistenza, tra queste il maquis. Sembra che solo ci rimanga la speranza che il dittatore muoia o sia decrepito. Così nascono altre resistenze, si aprono altre vie. Per dirla in breve, questa è l'epoca in cui nasce, tra gli altri fenomeni, ETA. Credo che questo sia presente nel mio romanzo e che ne L'ultimo fucile ci siano alcune chiavi di questo. Sebbene non si tratti di un romanzo politico. Né poliziesco. Né psicologico. È un poco di tutto.

Prima ho detto che all'inaugurazione della ferrovia presenziò lo stesso Franco, Generalissimo e Caudillo di Spagna. Cosa sarebbe successo se qualcuno avesse approfittato di questa situazione per sparargli e ammazzarlo? Come già sapete, questo non accadde. Però lascia in sospeso molte domande. Una fondamentale, è quella se ognuno di noi avesse dato rifugio a un viaggiatore, un vecchio amico, che una notte bussava alla nostra porta. Certo che sì. Però, se venisse armato? E se avesse intenzione di uccidere il dittatore e noi lo sapessimo? E se ci ponessimo la domanda al giorno d'oggi?

Dal romanzo che mai scrissi – l'avrei intitolato "Trenta giorni di agosto" – presi il tema dell'omicidio di un personaggio importante. In quel romanzo si trattava di un anarchico che voleva sparare ad Alfonso XIII, nel 1912, quasi nello stesso luogo dove ne L'ultimo fucile qualcuno penso di attuarlo contro Franco nel 1955. Confessare questa mia tentazione per l'omicidio di un personaggio importante nella finzione può causarmi delle antipatie, lo so. In fondo, si tratta di un gran tema. Ed è molto reale. Hanno cercato di uccidere Alfonso XIII molte volte. E un grande amico, Koldo Izagirre, ha romanizzato la storia di Angiolillo, un anarchico italiano che tolse la vita a Canovas del Castillo, capo del governo del Regno di Spagna e che venne giustiziato

vilmente con la garrota. Tutto questo accadde nella nostra terra, nel 1897, durante il regno di Alfonso XII. Di modo che il tema per me è letterariamente esaurito, però le domande continuano a esserci.

Torno a L'ultimo fucile. Al sesso in questo caso. Siamo qui, siamo nati, ci hanno partorito, ci hanno creato e sembra che non ci possiamo neanche immaginare la passione carnale dei nostri progenitori. Però, eccome se la provarono! Non siamo neppure capaci di immaginare il passato a colori. E il sole esisteva già allora, e il mare era azzurro, e l'erba verde, e il txacoli – il nostro vino acido – era già del colore dell'uva settembrina. Scrivendo di un'epoca passata bisogna tenerlo ben presente, almeno così credo io.

Così, con queste sensazioni in mente, iniziai a districare la storia di Onofre e del suo amico Juan, il maquis. Iniziarono ad apparire altri personaggi, di alcuni dei quali già ho parlato e gli altri li scoprirà chi leggerà il romanzo. Tutti arrivavano come trascinati dal treno. Portavano con sé dolore e allegria. Mi fecero piangere. Delle volte per scrivere devi piangere. Io ho pianto scrivendo. Così ho potuto affrontare la morte di mio padre. Piangendo e scrivendo.

Poi c'è la musica. Questo è un romanzo da leggere, se lo si desidera, ascoltando Beethoven. Come Onofre. Cercando di scoprire il senso della vita. Da questo punto di vista il romanzo ha qualche cosa di esistenzialista, almeno così credo io.

Termino accennando al titolo. L'ultimo fucile. A sentirlo, sembra uno spaghetti-western. È la verità. A me non dispiace. Mi piaceva molto come genere. E, in fin dei conti, questo è un romanzo scritto con la macchina da presa. A volte in spalla, a volte sopra il tripode, a volte tramite carrellate. Come durante il viaggio in moto. Che è proprio uno dei momenti in cui mi divertii di più. Spero che i lettori de L'ultimo fucile lo apprezzino in italiano. Per questo devo ringraziare la traduttrice Roberta Gozzi, che lo ha tradotto dall'euskera, come già aveva tradotto La voce delle balene – e con la quale ho passato molte ore lavorando e chiacchierando. È stata una fortuna per me conoscerla e le sono infinitamente grato per tutto, non solo per i libri. Debbo ringraziare infine l'editore, Giovanni Tranchida, lo stesso che ha pubblicato entrambi i libri, riconoscendo pubblicamente, come nel caso di Roberta, tutto il lavoro che c'è dietro e il trattamento personale che ho ricevuto durante tutto questo tempo. Grazie a loro ho conosciuto un poco l'Italia, realizzando così uno dei miei sogni più cari. Che sia successo così, tramite questi libri, lo apprezzo ogni giorno di più. Questo è quanto. Spero di non avervi annoiato troppo. Grazie.

-----